

A I T O R HERNANDEZ

"Italian asko ikasi dut"

22 URTE DITU ERMUKO TXIRRINDULARI GAZTE HONEK. JUBENIL ZEIN AFIZIONATU MAILAN OSO EMAITZA ONAK LORTU ZITUEN ZIKLO KROSEAN ZEIN ERREPIDEAN. PROFESIONAL MAILARA PASATZEKO EZ ZUEN AUKERA HAUNDIRIK AURKITU ETA ITALIAKO LPRREN ESKAINTZA IRITSI ZITZAION. IAZ EGIN ZUEN DEBUTA PROFESIONAL MAILAN ITALIAKO LPR TALDEAREKIN. DENBORALDI HASIERA PRESTATZE LANETAN DABILELA EGON GARA BERAREKIN SOLASEAN

- 7 urte elkarrekin egon ginela. Geroztik nondik ibili zara?

Orduan 15 urte nituen. Elorrioko taldean ari nintzen. Ondoren zenbait urtez Ermuko Udaleko taldearekin aritu ostean, Baque taldean hasi eta Debabarrenako taldearekin afizionatu mailan 3 urtez aritu nintzen, Anton Ormaetxeak asko lagundu zidan urte haietan. Iaz, LPR taldeak 2 urterako kontratua egin zidan.

- Zer moduz profesional mailarako jausia...



Oso urte aberatsa izan da niretzat. Asko ikasi dut. Profesional mailan lehiakortasun haundia dago, erritmoa ere asko arintzen da. Urtearen amaieran, 27.000 kilometro egin ditut.

- LPR taldean zu zara euskaldun bakarra?

Bai. Ni eta beste errusiar bat izan ezik, gainontzekoak italiarrak dira.

- Italiako bizimoduaz zer diozu?

Oso estresantea da hango bizimodua. Kale guztiak autoz beteta, baina jendeak ordu gehienak etxean pasatzen ditu. Ez dago hemen dugun kaleko edo tabernako girorik. Entrenatzeko orduan ere, autoek ez dizute inongo errespeturik agertzen.

- Denboraldi luzeak egiten dituzu etxetik kanpo...

Denboraldiaren hasieran Italia inguruan izaten ditugu lasterketa gehienak eta han mugitzen gara. Denboraldiaren bigarren zatian, Espainiako klasikak, egun gutxiko itzuliak egin ditugu eta horri esker, Ermuan maizoa egon naiz.

Dena den, etxetik kanpo bizi izana ere niretzat mesede eta ikasgai ona izan da.

- Zer moduz moldatzen zara sukaldean?

Banoa apurka-apurka. Pasta egiten ederki dakit. Spaghetti, makarroiak...ea

- Eta entrenamenduak amaitu ostean dituzun tarteetan, zer egitea duzu gustoko?

Interneten aritzen naiz. Lagunei mezuak bidali, hemengo berriak irakurri...

- Urtean zehar pasa duzun une txarrrena?

Pasa den otsailean izan zen. Frantzia. Lasterketa guztian, hasi eta amaitu, 210 kilometrotan euria gogotik bota zuen eta hotz ikaragarria egin zuen.

- Aitor Galdos, Igor Astarloa, Horriilo. Baduzu haiekin harremanik?

Aitor ere Italiako talde batean ari denez, sarri ikusten dugu elkar. Igorrekin, hemen gaudenean elkarrekin entrenatzen dugu. Pedrok beste talde batekin entrenatzen du.

- Datorren urteari begira zein asmo?

Hasiera batean egingo dudan egutegia iazkoaren oso antzekoa izango da. Otsailean hasiko gara lasterketekin Lasai hasiko naiz. Denboraldia oso luzea izan ohi da eta iaz, beharbada lan larregi egin nuen denboraldi hasieran eta azkenerako luze egin zitzaidan.

- Hemengo talde batera etortzea desioko duzu...

Nire egungo taldea ez dago ProTour zirkuitoaren barruan. Zirkuito horren barruan dagoen talde batera jausia egin nahiko nuke eta etxeko taldea bada, askoz hobe.

Asier Ibaibarriaga

MALLA

ileapaindegia

Probaleku 8, behea

© 943 17 18 50

KAFETEGIA XAGUA

Zubiaurre kalea, 23 behea